

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2016ko bigarren hiruhilekoko eroldari

Nik, Josune Irabien Marigortak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko azaroaren 3an egindako bilkuran erabaki zuen behin-behineko onarpena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren 2016ko bigarren hiruhilekoko tasa ordaindu behar dutenen eroldari (espediente zenbakia: 16211C2271), eta erabaki horren berri 2016ko azaroaren 4ko ALHAOn (123. zenbakian) eman zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta jendaurrean jartzen da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 98.3 artikuluan xedatutakoak betetzeko.

2016ko abenduaren 1etik 2017ko urtarrilaren 31ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuari dagozkion 2016ko bigarren hiruhilekoko tasak.

Tasa hori ordaindu behar duten zergadunek udaletxeko zergabilketa bulegoan ordaindu ahal izango dituzte zerga zorrak, epe horretan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, bat etorritik indarrean dagoen Zerga bilketarako Araudi orokorrean ezarritako xedapenekin; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko azaroaren 28a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA